

Nafarroako euskararen historiaz

Joseba Intxausti

Ofizioko jaun-andre jakitunek sarritan esan dutenez, historilarien belaunaldi bakoitzak idatzi ohi du bere Historia propioa; hau da, norberaren bizialdiko galdera historikoei erantzunez idazten omen da historiografia. Gu ere saiatuko gara gaurko buruhaustetatik iraganari galdetzen.

Baina lehenik itaun bikoitz praktiko bat: Zein “Nafarroaz” eta zein nafarrez hitz egin nahi dugu hemen? Komeni da horretaz oharren bat egitea.

Nafarroa edo *nafarrak*, beren adiera geografikoan hartzen ditugu batez ere; baina ñabardura historiko zenbait ere gogotan dugu. Beraz, gaur eguneko Nafarroaz ari gara (Nafarroa Beherea ere Nafarroa dela, noski); hala ere, muga horiek nahikoa hertsia gertatzen zaizkigu berehala. Gertakari historikoek bortxatuta, gaur eguneko kontzeptu geografiko hori anakroniko eta ez-aski bilakatzen zaio laster historiografiari, eta unean uneko egoera be-

rrietan premiazkoa gertatuko zaigu terminoa historia etnolin-
guistikotik ere zerbaitetan ukitu eta zuzentzea. Hala ere, lanean
hasteko balioko digu *Nafarroa* izen horrek, eta ez naiz hasiko
hemen deslekuko gogoeta korapilatugotan. Azken batean, izena-
ren hau ez bait da deus berezia, *Espainiaz*, *Frantziatz*, *Kataluniaz*
edo, nahi bada, *Euskal Herriaz* ere ari diren historilari guztiena
baizik. Bego, ba, hori bere horretan: Sei Merinalde historikoek
osatzen dute gure *Nafarroa*, eta berorietako bizilagunak dira, ba,
nafarrak.

Nafarroan, hizkuntzarenak ere baditu bere mugapen-arazoak.
Bertan egonaldi labur edo luzeagoren bat egindako bidaiari edo
etorkinak erabat ahanzteko asmorik gabe, baina denak hemen alfe-
rriek aipatzen ez hasteko, hona zerrendan Nafarroako lurraldean
—balio batekin edo besterekin— bizirik egon diren hizkuntzak:
Euskara, zeltiberiera, latina, gotuera, arabiera, nafarrera, hebraiera,
okzitaniera, frantsesa, gaztelania, etab. Hizkuntzak, ugari, beraz.
Hala ere, berez doa, horrek ez du esan nahi guztiak tamaina berdi-
neko edo berdintsuko presentzia izan dutenik. Orrialde hauetan
esatekoak batez ere euskarari buruz badoaz ere, komeni da hiztun
elebakarren hizkuntz ugaritasun hori (seguraski, ez hainbeste giza-
banakoen eleaniztasuna) gogoan hartzea.

Historiaren sarean

“Historiaren harian” idatz genezakeen, baina horrelaxe utziko
dugu, *Historiaren sarean*, zeren eta Historia horri eman nahiko
geniokeen begiratu soziolinguistikoak (eta idazlanaren laburtasun
honetan nekez eman ahal izango diogunak) gizartearen eta hiztun-
goen *egiturei* ere begiratzea eskatuko bait luke.

Lehen-Historiari bi ohar

Oro har, Nafarroako lurraldea —garaiko Araba, Bizkaia edo
Gipuzkoa ez bezala— izen eta agian egitura-ardatz bakarreko he-

rri bakar batek biztanleztatua ageri zaigu lehenengo iturri historiko literarioetan: *baskoinen herria* da Nafarroa Garaia idazle klasikoentzat. Baskoinei buruzko lehen albiste ziurrak K.a. 76koak ditugu eta Salustiori zor dizkiogu. Erromatarren aurrekoa zehar bigdez eta ondoko egoeratik ondorioztatuz ezagut dezakegu.

Nafarroa Garaitik at, Pirinioetatik iparraldera, ordea, *akitaniarrak* aipatzen dituzte iturri klasikoek, beraz Nafarroa Beherea baskoinak ez ziren beste gisa bateko jendeen eskuetan zegoen.

Horrela definituta geratuko litzatekeen Nafarroa Garaia-aren batasun baskoin horri, hala ere, ñabardura berri bat gehitu beharra dago: Neolitoko populazio pirinio-mendebaldarrari, zenbait bizi-gunetan etorkin mediterrancarrairekoak eta Urbiolako brakizefalooak inguratu zitzaizkion, lehenik, eta Burdin Aroan erteuroparrak eta Penintsulako zeltiberiarrak. Esan dezakegun erabateko arraza-batasun osorik ez dago, ba.

Herri baskoin honen euskaltasuna baieztatzeko, klasikoen testuek ez digute apenas laguntzen. Horregatik, epigrafia nahiz toponimiatik dakizkigunez baliatu ohi gara, eta ondoko mendeetako egoera ezagunagoetatik ondoriorik logikoenak atereaz proposatu ohi dira hipotesirik itxurazkoenak. Horrela, Nafarroako baskoinak (Aragoa-Errioxa-Nafarroa-Bidasoa) eta akitaniarrak (Pirinioak/Garona) euskalduntzat eman ohi dira, garaiko idazkun epigrafikoek gero eta argiago erakusten dituzten euskaltasuna eta hizkuntz kidetasuna gogotan hartuz: Lerga, 1960.

Horrela ikus daitekeen Baskoinerrian, ordea, euskaraz besterik bazen: zenbait puntugunetan (Kortes, Oteiza, Zangoza edo Bidaurreta) zeltiberiera nahiz beste dialekto indoeuoparren bat erabiltzen zen agian eta Ebro ondoko Erriberan indar handiagoa izan zezaketen hizkuntza etorri-berriek.

Latin erromatarraren itzalpean

Erroma Nafarroara hurbiltzean (Ebrogora K.a. 196an, eta Iparaldetik K.a. 56an), soldadu, merkatari eta kolonuek latina ekarri

zuten, hizkuntza lehiakide berria. Jakina denez, Nafarroa bi alde sozio-ekonomiko ezberdinetan banatuta agertu zitzaizen erromatarrei: *saltus*-a eta *ager*-a, hau da, mendialdeak beren basoekin eta lautadak beren garisoro, olibadi eta mahastiekin. Bi Nafarroa horietan erromatartze-prozesuak indar eta jite ezberdinak izan zituen. Oro har, Nafarroako erromatartzea Betika edo Galietakoaren atzetik geratu zen; baina Erriberan indar onean sartu zen kultura berria eta mendialdea bera ere ez zen isolatuta geratu, galtzarabideek Euskal Herria osorik zeharkatzen bait zuten.

Hil-ala-biziko arriskua izan zen euskararentzat Erromak ezarri zuen latintzea. Historian ezagutu dugun unerik larrienetakoa, itxura guztiz, bere hegoaldeetako lautadetan bereziki, eta, jakin, badakigu Erriberako lurraldea irekia dela eta erromatartze goiztarrena hangoa izan zela.

Erromak, normalean, ez zuen ezarri latina bere Inperioan lege edo dekretu bidez, baina ezarritako egitura politiko eta sozio-kulturalek latinaren ezarpenari lagundu baizik ez zioten egin, zeren eta antolamendu sozio-politiko berrian latina bait zen hizkuntza bakarra. Nonnahitik zetozen kolonizatzaileek latina zuten mintzaira amankomuna, nahiz eta, beren sorleku ezberdinegatik, ez denek latin-modu berbera izan.

Inperioko herrien latintzeak mendebaldean Historiako bigarren indoeuropartze handia ezarri zuen, aurreko beste hizkuntza indoeuroparrak, Rhin-etik mendebalderantz bederen, itoz edo oso alboetara baztertuz (galiera eta zeltiberiera ito egin ziren, nahiz eta, bestalde, bretoiera bezalakoren bat edo beste Inperioaren erzetan salbatu).

Nola eta zergatik salbatu zen uholde hartatik euskara? Arrazoiak ez daude aski argi, baina aipa ditzagun aintzakotzat hartu ohi direnak. Gaurko Euskal Herriaren, edo hobeto, *saltus*-aren, txikitasuna, ahulezia, pobretasuna, basatasuna eta erresistentzia armaturik eza izango lirakeke, euskaldunon aldetik, hizkuntza gordetzen lagundu ziguten faktore nagusiak. Erromatarren aldetik, ostera, laster (III. mendiaz geroztik jada?) Inperioaren kontrol-aparailua ahulduz joan zen hemen, bi mende geroago erabat lur jo

zuen arte. Latinaren tresneria kolonizatzaileak ez zuen aski indar izan. Faktore hauen osagarri, gogora liteke, gainera, euskararen beraren “bestelakotasuna”, hots, bere barruko hizkuntz egituretan latinarenetatik duen berezko aldea.

Erdi Arorako indartzen

Erromaren erorikoa (V.m.) unerik onenean gertatu zen, non-bait, zeren Inperioaren indarra eta kristautze erromatar latintza-learen eraso aldeberean elkartu izan balira, ordurako beheza zeto-rren euskara, parada erabat itogarrian suertatuko zitzatekeen, zalantzarik gabe.

Kanpoko bortxa arindu zelako, eta barneko biztanleria euskaldunak gora egin zuelako itxuraz, hurrengo mendetik aurrera (VI-VII.etan alegia), euskaldungoak indarberitu egin zuen bere hizkuntza, landak eta landatarren pisu erlatiboak gora egin bait zuten, hiritar latinduen kaltetan. Egoera berrian, Nafarroako Mendialdeak eta Ertaldeak bertako euskara indartzeaz gain, hegoalde-rantz ere hedatu zuten jatorrizko hizkuntza nafarra. Hauxe da euskarak ezagutu duen hedapen-uneetako bat.

Erdi Aroko hizkuntz ugaritasuna

Erdi Aroak, ordea, laster ekarri zuen beste erronka bat ere: jaioz eta indartuz zetozen hizkuntza erromanikoa, esan nahi dut. X. mendean mamitutzat eman ditzakegu hemen inguruetakoa. Historiaren testuinguru horretan, berehala gogoratu ohi ditugu gaztelania eta Glosa Donemiliagarrak (c. 950); baina *nafarrera erromanikoa* ere aipatu behar da. González Ollé-k eta Ciérvide-k bildu dizkigute, adibidez, hizkera honen lekukoak era sistematiko batean. Hizkuntza latinkume honek (gaztelaniak baino lehenago) hartuko zion gerora erreleboa kultur eginkizunetan latinari, euskararentzat aukera historiko berri bat galtzen zen unean.

Hala ere, Erdi Aroko Nafarroa soziolinguistikoa ezin daiteke euskara, latina eta nafarrera erromanikora muga. Ez da ahantzi

behar, Nafarroako lurraldean eta garaiko nafar Erresuman, bilduz eta haziz zihoazen hiribildu eta hirietan arabiera, hebraiera, eta okzitanieraren dialektoak entzun zitezkeela batez ere XI. mendetik aurrera. Egia da, Nafarroako landetako edo Mendialdeko biztanle gehienek euskara zuten hizkuntza bakarra; baina, esan bezala, besteok ere lehian zetozen, Erreinuaren mugetan gaztelania (Errioxan) eta aragoera (Aragoan) hurbil ziren bitartean.

Horiek denak gorabehera, *nafarren hizkuntza* —jatorrizkoa eta zabalduena, alegia— euskara izango da. Ikusi besterik ez dago, dokumentu ofizialetan ere nola izendatu ohi den:

...dicebatur rustico vocabulo *Ataburu* (1045)... cognominatus est ab antiquis vulgalibus *Anarcha* (1051)... proprium vocabulum sortitum est *Uerdasacu* (1058)... in **basconea lingua** *Mussiturria* (1060)... quem **bascones vocant** *Ygurai Mendico* (1085)... **dicitur a rusticis** *Aker Çaltua*. Nos possumus dicere “Saltus ircorum” (Nos possumus dicere “Soto de ueko”) (1076)... faciet ut **lingua navarrorum** dicitur *unamaizter* et Acceri Umea faciet *buruzagui* (1167)... clamada en **bascuenz açaguerrico** (Foruan).

Horietatik ikus daitekeenez, ongi deskribatua dago Ciérvidek luzatzen digun egoera soziolinguistikoa:

Herri xumeak, nekazariak, edo, Leireko testuek dioten bezala, *nafarrek*, erreinuaren eta bere jaunen sostengu ekonomikoa ziren haiek, euskaraz mintzatzen segi zuten, lurrak landuz, artaldeak zainduz, eta agian almadietan Tortosako untzitegiatar eramango zen zura prestatuz.

Hizkuntzaren arruntasun horrek, ordea, zeharbidez gizarteko betekizun sozial dinamikoagoetako euskararen ausentzia edo ahultasuna azpimarratzen du: forma eta bititza ekonomikoko modernoago eta etorkizun hobeagoetara atzera gelditzen ari zen euskara. Mende-epe luze baterako arrisku kronikoa izan zitekeen hori, geroak ongi erakutsi digunez.

Aipatutako hizkuntz kontzientzia ofizialak ez zuen, bestalde, euskara erabilpen idatzi ofizialera eraman, hain zuzen botere ekonomikoa, politiko eta kulturala zutenak beste hizkuntzetako elebarrak zirelako, edota elebidunak izanik ere, euskara ez bestela-

koetan idazteko ohitura zutelako noski. Gogoratzekoa da hemen XIII. mendetik aurrera, Nafarroako erret dinastiak Frantziatik etorriak zirela eta Gortean frantsesa entzun ezezik, haiek etorri-berritan eta geroago ere seguraski elebakar ez-euskaldunik bazegoela.

Erromanikoen nagusitasun sozio-ekonomiko eta instituzionalak euskara baztertu egin zuen, beraz, erabilpen idatzi ofizialetatik. Hori ongi ikus daiteke Nafarroako Artxibo Nagusiko paperetan: Adituen eritziz, 80.000ren bat agiri dira nafarrera erromanikoz daudenak; 3.000ren bat okzitanieraz, eta deus ez euskaraz. Izan ere, salbuespen bitxi bezala aipatu izan dugu, agiri ofiziala ere ez den 1415eko gutuna.

Baina hona iristean, ohar bat gehitu beharra dago. Mitxelenak behin eta berriz azpimarratu nahi izan duen bezala, Nafarroako hizkuntza mintzatuen mundua deus gutxi ispilatuko luke ohitura idatzi administratibo edo kulturalak. Izan ere, errealitate soziolinguistikoko mintzatuaren eta ohitura administratibo idatzien bitasun kontrajarri hori ez bait da batere arrotza historian eta gaur ere.

Hutsuneak eta agian galerak aparte, Berant Erdi Aroko euskararen historia demolinguistikoan, irabazi bat ere gogoratu behar da: Hegoalderanzko Birkonkistak eta berorren ondoriozko birpopulaketak euskaldungoa ere hedatu egin zuten Erribera aldera: 1244-1264.etan, adibidez, Olite biztanleztatzera joandakoetarik % 42,3 euskaldun elebakarrak edo elebidunak ziren. Ez da, ba, lar harritzeko XVI. menderako marraztu ohi den euskararen Nafarroako mapa.

Zalantza betetako Aro Modernoa

Aro Modernora iristean, Nafarroako herri euskaldunen eta erdaldunen arteko mugen berri ematen duen agiririk aurki genezake artxibategietan: 1587 eta 1788etako herri-sailkapenak dira eza-gunenak. 1587koak, Peña-Kaseda-Galipentzu-Bilatorta-Arbeiza-Zufia-Metauten-Galbarra-n jartzen du bi hizkuntzen muga, baina beste zenbait iturritatik badakigu hegoalderago ere bazela herri

euskaldun elebidunik (Artaxona, Lizarra, Muniain, Tafalla eta abar). Zuzenketa gehigarri hau egin gabe ere, 1587an, 451 herri ziren Nafarroan euskaldunak eta 58 erdaldunak (*bascongados* eta *romanzados*, garaiko eliz terminologia juridikoaren arabera).

1788ko agirien arabera, XVIII. mendearen azkenetarako Irigairai-k honela ematen du euskararen muga Nafarroan: Leiretik, Erromantzatua ukituz, Oibarrera jaitsiz, eta bertoko Bizkaiko herri txikiak zehar, Orbaibarren hegoaldeetik, Tafalla eta Lizarra ondotik, Lana haranaren iparralderaino zihoan mugaren marra, Erreinuaren ekialdeetik mendebalderainoko tartea bitan banatuz.

Aro Modernoko geografia horretatik, intelektualen hizkuntza kontzientziara, erakundeen politikara edo literaturaren historiara baldin bagatoz, bada horietan ere zer aipa.

Kronologiari jarraiki, Euskal Literaturaren jaiotzan Nafarroak eta Erresumako Koroak (1564) berorrekin izan zuten zerikusia aipatu beharko litzateke lehenik. Etxepare (1545), nafarra zen, eta Seigarren Merinaldean eman zuen bizitza; Hegoaldean, berriz, bertako lehen euskal liburuaren autorea, Beriain (1621, 1626), eta argitaratzaileak ere nafarrak gertatu ziren. Eta Axular urdazubiarra bilakatu da guztiontzat Sara-Donibaneko Eskola lapurtarraren gailurrik garaiena. Hutsarte on baten ondoren, Lizarraga Elkano-koa gogoratu behar da (1748-1835): ez dugu deus berezirik esango honetaz, baina ezin burutik ken, Lizarraga hau gogoratzean, nolako bakardadean lan egin behar izan zuen, eta nolako lan gaitza burutu. (Liturgi kanta batzuk itzultzean, eskuizkribuaren orrialde gainean, adibidez, ohar hau eman zuen Lizarragak: *Eguinac guerra-demboran, etsaien erdian, naigabeen eta tristuren arintzeco, ta ematzeco*).

Nafarroako euskal idazle hauek eta Nafarroako erdal historilari handiek ere euskararekiko kontzientzia argitua erakutsi izan digute, eta haien argimenduak merezi du, laburki bada ere, hona zerbait ekartzea. Etxepare-ren testu ezagunak albora utzita, Beriain-i eta Moret-i esaldi bana hartuko diegu. Beriain goiztarrak idatzi zuen ondoko hau (1621):

Escribo en Bascuence porque no ha habido nación en el mundo que no se hayapreciado de la lengua natural de su patria y de enseñarla

en las escuelas a leer y escribir. Según esto, razón es que nosotros estimemos nuestra lengua bascongada.

Honelako testu historikoek, zalantzarik gabe, ikuspide historiko argigarria ematen diete gaur eguneko eztabaidei.

Moret (1615-1687), bere aldetik, *Annales del Reyno de Navarra*-n (1684), konstatazio batekin hasten da. Euskara, zera da Moret-entzat:

común de todos los pueblos vascones [*navarros*], como el mismo nombre de “Vascuence” lo dice; y el rey D. Sancho el Sabio le llamó Lengua de los Navarros. Pero en nuestros tiempos algunos pueblos, con el largo comercio con los fronterizos la han perdido [= *erdaldunduak*]; otros la hablan promiscuamente con la común de España [= *elebidunduak*]; todas las regiones montuosas la retienen como la lengua única [= *euskaldun elebakarrak*].

Baieztapen honen ondoren, euskararen eta euskaldungoaren defentsari ekiten dio Erresumako kronikari ofizial honek, beti ere garaiko eusko-iberismoaren ildotik joaz:

Si primitivo y común de toda España [*es el vascuence*], y conservado como testimonio de su libertad, ¿por qué se zahiere el tenerle? (...).

Si en esta necesidad de fortuna no se zahiere a las otras gentes el aver perdido del todo su lengua, ¿por qué se da en rostro a esta de retenerla, aunque algo disminuida y menos cultivada?

XVII.eko zenbait nafar, Moret-en antzera, minduta sentitzen zen euskararekiko eta euskaldunen ohitura linguistikoekiko ikusi eta jasaten ziren pentsamolde eta jarrerekin. Horien kontra, ba, hizkuntzaren aldeko eritzietara eta erabaki administratiboetara ere pasa behar zela uste zuen Fermin Ultzurrun-ek, adibidez, 1662an:

... por ser el lenguaje cantábrico o vascongado natural de Navarra (...) y por ver que se pierde (...), se establezca (...) que en los Tribunales de dichos lugares donde hasta ahora se habla, se escriba y hable en Vascuence.

Nafarroa Garaiko administrazio zibilaz ari zen, noski, F. Ultzurrun, zeren eliz auzitegietan edo Nafarroa Beherean arautuagoa

bait zegoen euskararen erabilera erdi-ofiziala, mintzatua bederen. Hain zuzen, XVII.ean Pirinioez iparraldeko Merinalde hartan bere egokiera juridikorik oinarrizkoena izan zuen euskarak. 1611ko Foru Nagusian bi puntutan aitortu zen erret funtzionarioek lekuan lekuko hizkuntza ezagutu beharra. Auzitegietako ofizialeen eta eskribauen lanetarako baldintza hori honela eman zen aditzera, kaskoineraz idatzitako testu honetan:

Et per administrar Justice mettera et tienda Officiers naturels et natius deu Royaume, ou autres terres de sa Majestad, si son trouvatz sufficiens et capables, et *que sapin lo lengoadje deu Pays*. (1611: I. kap., 4. art.).

Augun que no sic de defens lo Royaume, ou resident, et que no *sapy parlar, et entendre lo lengoadge deus contrabents*, no sera probedit de Officy de Notary, ni sera reçebut en l'exercicy dequet. (1611: IX. kap., 1, art.).

Les notaires doivent estre *basques* et regnicoles ou *du moins verses en la langue*. (166ko Araudia).

Izpiritu honen ildotik, XVIII. mendean, inoiz edo beste izanik ere, sartuko da euskara zeregin idatziren batetan. Garrantzizko adibide bat ezagutzen dugu: 1756an Erregeri eskaini zitzaion emaitzaren xehetasunak euskaraz ageri dira Pabeko Artxiboetan.

Aro Garaikideko erronka

Aro Garaikideari ekitean, Nafarroako euskarak aspaldidaniko ohizko bere muga-marran eusten zion erdarari (hegoaldean, Erriberaren atarian zuen mugaz ari naiz, noski). Adierazi nahi dudana-ren lagungarri Jimeno Jurio-ren ondoko testu hau ekar liteke hona.

El fenómeno de perduración del euskara en Tafalla, avalado por el testimonio de la catequesis en 1695 en “idioma bascongado”, es más admirable teniendo en cuenta su situación geográfica. Erigidos castillo y villa en la balconada meridional de los montes valdorbeses que la arropan, sobre la ruta de la Ribera al Pirineo por Iruñea, Altafaiila-Tafalla vivió asomada a la tierra llana. Por ser puerta obligada de paso entre las dos Vasconias, llana y montañosa (“Ager” y

“Saltus Vasconum”), sufrió desde antiguo influencias erdarizantes. Respondiendo a fines militares, desde la ocupación visigótica o quizás desde el Bajo Imperio, fueron creados en muchos municipios unos distritos denominados “Centenna”. La forma latina perdura en línea divisoria de ambas Vasconias. En documento importante para la historia del palacio real de Tafalla, Carlos el Noble cita palacios y casas “en la centena de Sosierra” y “en la centena de Sant Jordan” (1419). “Centena” o “Centeña” se les llama también en Larraga. Sin embargo, en la retaguardia defendida por ese baluarte fronterizo, los euskaldunes de Artajona, Orba, Valdizarbe, Iruñerria (Cuenca pamplonesa), Gesalaz y Deierri asimilan el nombre latino y lo convierten en “Cendea, Sendea”. Tafalla debe la conservación de la lengua preindoeuropea al vencindario del contorno, sobre todo a Orba, en cuya geografía se inserta y con cuyas gentes mantuvo relaciones endogámicas. La Ciudad cumplió así durante siglos una función vanguardista, garantía de seguridad y salvaguarda del euskara en sí misma y detrás de sus espaldas para el resto navarro euskaldun. El desmoronamiento de la muralla lingüística comportará la ruina en el interior.

Itxura guztiz, hiztungeoaren hegoaldeko erresistentzi muga honek, Euskal Herri osoko hizkuntzari nola lagundu izan dion neurtzea ez da erraza; baina, inondik ere, hori galdu zenetik euskararen galera zenbatekoa eta zein bizkorra izan den jakitea, zoritxarrez, errazagoa dugu. XIX. mendea aurreratu ahala, galera-abiada bizkortu egin zen Nafarroan. Kalkulatu izan denez, 1693tik 1863ra doazen 170 urteetan kilometro batzuk galdu ziren, baina ondoko 125 urteetan 40 edo 50 kilometrotako atzerakada izan da. Honek, beste gabe ere, ongi erakusten digu Eusko Pizkundearen lehenengo *sos-deiak* nafarrek aldarrikatzea.

Eusko Pizkundera: asmo berrituak

Eusko Pizkundearen jaiotza lehenik, nolabait esateko, nafarra izan zen (1876), ondoko hamarkadetan batipat Donostiatik gidatua izan arren. Hizkuntzaren defentsari beste inondik baino hobeki Iruñetik heldu zitzaion. Nafarroaren nortasun-ezaugarririk funtsezkoenak bezala hartu ziren Erreinuaren historia ezezik, euskara ere, azken karlistada amaitzean.

Hemen ez dugu modurik Nafarroako Eusko Pizkundearen historia osoa emateko; horregatik, hiruzpalau puntu nagusitara bildu beharko da esan dezakeguna: Ezinbestekoa da *Asociación Euskara*-rena gogoratzea; hor, Elkartre-inguru horretan, Kanpionek euskararen alde esan eta egindakoa ere bai; berdin, nafar Erakundeek gainerako euskal Erakundeekin burututakoa; orobat hizkuntzak betekizun sozialetan nahiz lurraldetan jasandako galera.

Asociación Euskara

Asociación Euskara de Navarra, Elkartrearen Aktek diotenez, 1877ko Urriaren 23an jaio zen, Iruñean, Iturralde eta Suit-en etxean. Hamahiru nafar ziren han bildutakoak, Kanpion da berorien artean azkena ageri dena, gazteena bera zelako, noski (agian 23 urte). Iturralde eta Suit-ek Kanpioni idatzitako hura (*No hay que dudarlo; el idioma de un pueblo es la manifestación más elocuente de su genio particular*: “El Eco de Navarra”, 1876) izan zela *Asociación Euskara de Navarra* Elkartrearen ikur kulturala esan daiteke.

Lehenengo bileraren xedea honela azaltzen da: *con el objeto de fundar una sociedad que velase por la conservación de la lengua é historia vasco-navarras* bildu ziren. Ardura honek ez zuen, ordea, zientifiko-teorikoa bakarrik izan behar, baizik eta eginkizun praktikoetara iritsi behar zuen.

El Eco de Navarra-k hasieratik bertatik eskaini zizkion bere orrialdeak, eta lehenengo “Batzarretik” bertatik (horrelaxe deitzen zituzten Elkartrearen bilera arruntak) beste euskal herrialdeetako idazleengana ere zuzentzea erabaki zuten, hauek ere beste hainbeste egin zezaten (antzeko *Academia* bat sortu, alegia). Bigarren Batzarrean erabaki zen izena, eta baita Nafarroa Beherea Elkartrearen barrutian hartzea ere. Hirugarren Batzarrean, garrantzizko albiste eta erabakiak eman eta hartu ziren: Gobernadoreak onartu zuela Elkartea, beronen barnean sei Sail eratuko zirela lanerako (hauetan lehenengoa, hain zuzen, “De lengua y Literatura vascongadas” bezala izendatua), eta Elkartrearen albiste-orri bat prestatuko zela: *la cual deberá publicarse en vascuence y castellano y se distribuirá en*

toda la provincia y en las vascongadas (1877-Azaroa-15eko Akta. Ik., gainera, 1877-abendua-21eko Akta).

Lehenengo ohorezko bazkideen artean, Abadia, Bruno Etxenike, Jose Manterola, eta Jose M. Iparragirre euskaltzaleak ageri dira euskal kulturako beste izen ezagun batzuen artean (Trueba, Moraza, Soraluze, Navarro Villoslada eta abarrekin batera). L.L. Bonaparterekin badago datu bitxi bat. Hil ondoren izendatu zuten ohorezko bazkide: *Deseando el Batzarre rendir un tributo de respeto y simpatía a la memoria del distinguido vascófilo...*

Elkartea jaio eta berehalako lehen hamarkadan egin zuen lan onik franko honek. Lagunarteak euskaltzaletasun teoriko eta politiko-kultural suharra zabaldu zuen. Esan bezala, Elkartearen lehenengo Sailari zegokion batipat hizkuntza zaintzea: Sailaren lehendakariak Obanos (1878), Legaz (1879, 1880, 1881), Marqués del Amparo (1882), Etulain (1883), Gonzalez (?) (1884) izan ziren.

Elkartek euskararen alde sustatu eta gidatu zituen ekintzen artean batzuk balio berezikoak dira, eta aipatu beharrekoak¹:

– Iparragirre-ri (1879) edo Zubiria-ri (1882) eskainitako laguntzak; lehenengoaz hola dio Aktak:

Los que suscriben

Considerando que D. José María de Iparragirre es socio honorario de la Asociación Euskara de Navarra,

Considerando que dicho señor siempre se ha distinguido por su amor á las instituciones del país Vasco Navarro,

Considerando que es uno de los pocos escritores que cultivan la poesía euskara y crea por lo tanto elementos de cultura que tienden a la conservacion de esa lengua, monumento vivo de nuestra secular independencia,

Considerando, que segun han dicho los periódicos del pais Vasco Navarro públicamente, Iparragirre se encuentra en la mayor miseria y estrechez,

Considerando que es un deber de los pueblos el proteger a los hijos que los ilustran

Suplican al Batzarre se sirva nombrar una Comision compuesta de cinco individuos, que estudie el medio más rápido y oportuno de

allegar recursos para D. José María de Iparraguirre, la que deberá someter su proyecto á la aprobación de la Junta General.

Pamplona 12 de Enero de 1879. Arturo Campión, Ramon Aramburu, Hermilio Oloriz, Salvador Echaide, Eusebio Rodriguez Undiano.

El Sr. Rodriguez apoyó la transcrita proposición y fué aprobada por unanimidad.

– Lore-Jokoek aldekoak (Elizondo, 1879; 1885).

Los que suscriben

Considerando, que la conservación del Euskara es uno de los objetos primordiales de la Asociación,

Considerando que es de la mayor importancia crear elementos de cultura que permitan á dicho idioma sostener un puesto elevado entre las lenguas literarias, á que le hace acreedor su admirable organización gramatical y lógica,

Considerando que el año pasado se tomó un acuerdo relativo a la celebración de juegos florales, que no pudo realizarse por falta de fondos,

Suplican al Batzarre se sirva acordar

1.º Se nombre una Comisión de cinco personas con amplias facultades, para que en vista de los fondos existentes en la Asociación y de acuerdo con Mr. D'Abbadie se celebre[n] juegos florales en los que se repartan premios fundados por la Asociación.

2.º El proyecto elaborado por dicha Comisión deberá discutirse y aprobarse en Junta General.

3.º Los acuerdos que recaigan sobre la celebración de los Juegos florales y sus condiciones, deberán hacerse públicos con dos meses lo menos de antelación.

4.º Estos juegos deberán celebrarse precisamente en un pueblo del país vasco-español, donde se hable como lengua propia y dominante el euskara.

Pamplona 12 Enero 1879. Hermilio Olóriz, Salvador Echaide, Antonio Sagaseta, Miguel Ormachea, Arturo Campión.

Después de unas breves palabras en su apoyo, fué aprobada la defendida por el Sr. Oloriz, decidiendo á la vez el Batzarre que los firmantes de la proposición relativa a mejorar la posición del Sr.

Iparragirre constituyan la comisión que en su texto se exige, y que la Comisión de los juegos florales sea nombrada por la Junta General sobre la base de los firmantes del Proyecto del Sr. Oloriz sin atenderse al número cinco que en ella se expresa, aunque no debe ser menor del exigido, y que se amplíe dicha Comisión con vascongados de la Asociación.

– Euskararentzat babes ofizialak lortzeko eta berorren irakaskuntzarako ahaleginak (1885-1887):

[...]. Se consignó un voto de gracias para los Sres. de la Junta por sus gestiones acerca del establecimiento de cátedras vascongadas y se suplicó por el Batzarre á la misma Junta que continúe sus trabajos en este sentido. (1885-Martxoa-29ko Akta).

[...]. El Señor Presidente dió lectura á la memoria reglamentaria en la cual descuella como principal objeto, la exposición elevada al Excmo. Sr. Ministro de Fomento sobre instalación en Navarra de Cátedras de la lengua Euskara y de que sea permitido en las escuelas públicas la enseñanza de la misma lengua: los trabajos llevados a cabo por el mismo Sr. Presidente para alcanzar estas concesiones son aprobados por el Batzarre y se le dan por ello las gracias mas expresivas; rogandole todos los presentes que continúe tan importantes gestiones y ofreciendose todos á coadyudar en sus tareas al Sr. Presidente.

Se estudia la conveniencia que tendria el dirigir una instancia á la Excma. Diputación Foral solicitando de esta Excma. Corporacion la creacion y sostenimiento de alguna cátedra vascongada y de que se trabaje para que dentro de nuestra provincia sea la lengua euskara protegida, propagada y conservada por cuantos medios se alcancen convenientes al objeto. En vista del interés que entraña la cuestión, se acuerda presentar una solicitud firmada por vecinos de Navarra sean ó no Asociados y recomendar en favorable resolución á los Diputados vascongados. (1886-Urtarrila-10).

[...]. Que la Excma. Diputacion accede á la peticion hecha por la Asociación Euskara, creando una cátedra de vascuence en la provincia. (1886-Azaroa-28).

Batzarre extraordinario celebrado el día 11 de Setiembre de 1887. En la ciudad de Pamplona a Once de Setiembre de mil ochocientos ochenta y siete reunido el Batzarre previa convocatoria hecha por la Junta Directiva, al objeto de presentar un proyecto del Sr. Landa,

D. Nicasio, cuyo és, ofrecer á S.M. la Reina Regente una medalla de bronce y diploma de honor en testimonio de gratitud y reconocimiento por el grandísimo aprecio en que tiene á la lengua Euskara como lo ha manifestado dedicandose á su estudio y demostrando su deseo de que el Rey niño aprenda tan rica lengua.

El Batzarre aprobó el proyecto y acordó nombrar como Comisión a todos los presentes Sres. D. Estanislao Aranzadi, D. Nicasio Landa, D. Bonifacio Landa, Sr. Marques del Amparo, D. Benito Diez, D. Pascual Dihnx[?], D. Ricardo Lipuzcoa, D. Donato Cumia[?], D. Jose Unsaló que presididos por D. Nicasio Landa, en defecto del Sr. Presidente de la Asociación que tiene que ausentarse por motivo de luto de familia, se presente á S.M. la Reina cuando esta Señora venga á Pamplona, y le entregue el obsequio que la Asociación le dedica.

La Comisión queda encargada al par que de cumplimentar a S.M. suplicar que recomiende la solicitud presentada por el Presidente de la Asociación al Excmo. Sor. Ministro de Fomento, pendiente hoy de informe de la Academia de la Historia para la creación de Cátedras de bascuence en los Institutos y Universidades; hacer presentes otros extremos que se acuerdan y los que en la Comisión ocurriere en bien de la Asociación. (1887-Iraila-11).

Euskararen irakaskuntzaren aldeko ardura hau Foru-Aldundiaren eskuetara pasa zen urte haietan, Nafarroan bertako euskaltzaleen deiei jarraikiz eta Gipuzkoako Aldundiaren asmoak erduztat hartuz. Erakunde honi Nafarroakoak honela idatzi zion 1896an:

Esta Diputación [de Navarra] se ha enterado con imponderable complacencia del erudito y patriótico informe emitido por la Comisión de Fomento de V.E. y aprobado en sesión [de esa Diputación de Guipúzcoa] de doce de Noviembre del pasado año, referente á que se exija á los Maestros y Maestras que hayan de regentar las escuelas del pais vascongado el conocimiento de la lengua Euskara. No podía dar V.E. prueba de solicitud que recayera sobre asunto mas grato á la Diputación de Navarra. (FLV XI, 1979, 361-364).

Lehendik zetorren eskolarekiko kezka hau. Berorren beharraz eta kalteez aurreko mendean ere ohartuta zeuden nafarrak (1765): ... *por haverse introducido este idioma [gaztelania] generalmente,*

con la plausible providencia de enseñarlo los Maestros, no solo a los niños prohibiendoles el bascuenz si no es a todo el pueblo...

Paradoxa badirudi ere, Elkartearen desegitea euskararen aldeko arrazoiak gogoratzuz agertzen zaigu Aktetan:

El Sr. Presidente expuso que habiendo acordado la Excma. Diputación Foral constituir una liga sobre amplia base, con el fin de fomentar y propagar la hermosa habla euskara, podía darse por concluido el objeto á que obedeció la constitución de la Asociación Euskara de Navarra, que tan singulares beneficios había producido en el país. Propuso también que cuantos objetos pertenecían á la Asociación se pusieran á la disposición de la Exma. Diputación elevando á la vez á la misma una exposición de que dió lectura, consignando en ella los motivos de la disolución de la Asociación.

Se aceptó por unanimidad lo propuesto por el Presidente, así como el escrito de que dió lectura con ligeras variantes, y se acordó prorrogar la disolución de la Asociación hasta el próximo Batzarre en el que el Presidente daría cuenta de su gestión ante la Diputación con orden á esa disolución. (1897-Apirila-8ko Akta).

Revista Eúskara (1878-1883) izan zen Elkarre honen eta inguruko euskaltzaleen aldizkaria. “Zazpiak bat” ikurpean euskal nazioa indarberritu eta gidatu nahi izan zuen. Hogeitabi urte eskaseko bizitza izan zuen, 1897ko Ekainaren 8an desegin bait zen (... se acordó por unanimidad disolver la Asociación. Queda pues disuelta y extinguida la patriótica y benemérita Asociación Eúskara de Navarra elevando votos al cielo por la prosperidad y perpetua independencia de la Raza Eúskara).

Arturo Kanpion (1854-1937)

Testuinguru sozio-kultural hartan hizkuntzaren bandera irmoena hartu zuena Arturo Kanpion izan zen. Euskararen galarenen antsia barne-sakonean zuen idazle honek. Hogeitamar urte zituela kaleratu zuen bere gramatika handia (1884), baina ordurako *Asociación Eúskara*-ren eta *Revista Eúskara*-ren esperientziak bere bizkar zituen. Hizkuntzaren borrokari gagozkiola, ezin ahantziak dira “Erraondoko azken danbolinteroa” deritzana (1934) edo

Blancos y Negros-en daukagun Martinikoren historia. Irujo (1971), Elortza (1978), Ciérvide (1983) eta Granja-k (1983, 1985) aztertu dute azken urteetan Kanpionen alde linguistiko hau.

Ciérvide-k honela laburtu du Kanpion euskaltzalearen pentsamendua: Hizkuntza, herri-nortasunaren funtsezko ezaugarria da Kanpionentzat; hiztunen artean batasun trinkoa sortzen du berorek eta, ondorioz, hiztungoaren kontzientzia historikoa ere bai. Oso garaiz idatzi zuen honetaz Kanpion-ek, Madrileko *La Paz*-en (1876):

Mientras los vascongados conseven su habla original y privativa no habrá temor de que se disminuya el amor a sus Fueros, porque cada palabra que pronuncien les recordará el estado social y político de sus padres (1876).

Geroko soziolinguistikari aurrea hartuz, hizkuntzaren heriotza hain hurbil ikusten zuen Kanpion-ek, atzera-fenomenoaren arrazoiak gizartean eta euskararen beraren barne-atzeramendu historikoan aurkitu zituen.

Entre las causas externas cabe citar: la facilidad de comunicaciones, la proscripción oficial de la lengua, el utilitarismo, la emigración a América y con ella la disminución de hablantes, el desprestigio social de la lengua al abandonarla las clases dirigentes y parejo a esto la imitación por el pueblo.

Entre las causas internas: la inadaptación de la lengua a los tiempos nuevos por falta de un léxico apropiado y su subdivisión compleja en dialectos. (Ik. Ciérvide, 1983).

Kanpion-en pentsamoldean, euskal naziotasunaren ardatza, funtsa eta mamia euskara da, berau bait da aldi berean iraun-tresna eta naziotasunaren ezaugarri nabariena.

... el pueblo euskaro ha podido conservar su personalidad y se ha mantenido con su genuino carácter (...) a través de los siglos porque supo guardar, como en depósito sagrado, la antiquísima lengua vascongada (1878).

Agonia baten antsia suma daiteke Kanpionen idazkietan, eta inork gutxik bezala asmatu zuen sentimendu hori bere irakurle-

enganaino pasatzen. Azken karlistada bukatu eta berehala, hain zuzen *Asociación Eúskara*-ren jaio-bezperatan honela idatzi zuen:

En Navarra la muerte del Euskara avanza a pasos agigantados: territorios de los más importantes de la provincia han olvidado completamente su idioma en algo más de un siglo (...). Refugiado hoy en los valles de las altas montañas al N., NO. y NE. de Pamplona, llegará pronto la época en que la estúpida obra de destrucción se habrá completamente realizado. El mismo daño amenaza a las otras provincias. (1877).

Testu hauekin, bere obra gramatikalarekin eta zabaldu zituen ideia soziolinguistikoeekin (*avant la lettre*, noski), Kanpion-en idazketa-lana da hizkuntzaren defentsan izan dugun ahotsik literarioki lortuena. Eta, egungo euskaltzaleontzat ere, antologia zinez irakurgarria eman leizagukeena. Baina ahalegin literarioetatik gazozen errealtate helkorrera.

Lurralde galduak

Egia esan, eta zoritxarrez, Kanpion ez zebilen oker, Nafarroako egoera eta bilakaera soziolinguistikoa hain ilun ikustean. Haren garai-garaian gertatutakoaren berri jakin nahi duenak aski du bi mapa ezagunei begiratu on bat ematea (Bonaparte 1863, Irigaray 1935), ondoko hamarkadetarako Sánchez Carrión-enganaino (1970) iritsi nahi ez bada. Bi data haien artean gertaturikoa larria izan da zinez: Izaba edo Erronkari, Jaurieta eta Azparren, Sorauren nahiz Gurpegi, Errotz edo Aizpun..., galdutako asko izan dira. Erraondo aunitz izan da geroztik ere Nafarroan.

Labur-beharrez, ez gara hemen geografia historiko horren xehetasun gehiagotan sartuko. Elgoibar/Zubizarreta/Gaminde-ren lanak (1987) eman nahi izan du guztiaren sintesi eguneratua.

Galerazko bilakaerak eraginda, eta Euskal Herri osoan indartuz zihoan abertzaletasunaren korrontean, gerraurreko euskaltzalegoak zimentarri berriak eraiki nahi izan zizkion Nafarroan hizkuntzari. Aipa ditzagun ahalegin horietako batzuk.

Euskaltzaleen ahaleginak

Mendearen lehenengo hamarkadetatik hasita, euskara egoera jasoago eta eskolatuago batera eramateko lanak ageri dira. Nabaria izan zen saioa: Larramendiren garaikoen edo, hurbilago, Kanpion eta lagunen kezka beretsua ikusten zaie euskaltzale nafarrei. Ar-maz menperatu ziguten euskal nortasuna, hizkuntza zintzelatuz irauñ erazi beharko zen: horretarako, gramatikak (Bera, 1909; Arrigarai, 1919), hiztegiak (Bera, 1916), hizkera herritarraren bildumak (Intza, 1917; Irigarai, 1926) eta iraskas-lanetarako ikasliburuak (Intza, 1924, 1927) sortu ziren. Lan guzti hauek beren jaiotegun jakinak izan zituzten.

Hizkuntzaren ospakuntza herritarrak geroz eta sariago eratu ziren, Iruñean eta herri euskaldunetan, eta euskara hiltzear zuten herrisketan: Auza, 1908; Doneztebe, 1923; Auritz eta Otsagi, 1926; Zaraitzu, Lizarra, Berroeta, Leitza, 1927, eta konta ezin ahal-l. Herritar guztien festa ireki hauetan, edo berezikiago horretarako-koxe antolaturiko ospakizunetan, Euskal Egunak, Lore-Jokoak eta Sariketak egingo dira, idazleei deituz edo herrietako haurrak euskal lanetara ziztatuz: Iruñean noiznahi (1912, 1918, 1925, 1926, 1928..., etab.) eta hiriburutik kanpoko beste herrietan (Uhart-Arakil, 1935).

Ahalegin hauek Aldundiaren edo Udaletxe handien babesere izan zuten, behin baino gehiagotan Euskaltzaindia ere tartean zela, hala-nola 1923an. Eta nafar euskaltzaleek, hizkuntzari laguntza hobeak sortu nahirik, 1925ean "Euskararen Adiskideak" Elkarte eraiki zuten: beronen eskutik joan zen ondoko urteetako hainbat euskal ekintza, ahal zenetan Aldundi edo Udaletxeekin jardunez, eta, besterik ezcan, bere gisara. Euskal eskolaren oinarritzko pauso batzuk beroni esker eman ziren (1933).

Euskal Herri osoak sumatu zuen Nafarroatik zetorren haize beroa, eta argia. Kanpion, askorentzat, sinbolo bilakatu zen, jakitunaren irudi beneragarri: han eta hemen omendua izan zen (Donostia, Lasarte). Bestalde, bai Navarro Villosladari (1918) eta bai Kanpioni (1934) eskaini zizkien Iruñeak zegozkien omenaldiak.

Hondamendi-bidean ikusten zen aberriak eta hizkuntzaren grinak jo zituzten eliztarrak ere, eta, horren ondorioz, egindako kultur eta eliz lana handia izan zen, lehenik kaputxinoen artean (Lekarozeko Ikastetxea, hizkuntz argitalpenak, euskal aldizkariak, etab.) eta geroago Elizbarrutian ere (Seminarioan, katekesi berrikuntzan...).

Euskara ikasiz, ikasteko lanabesak eguneratuz, hizkuntz lan-gaiak bilduz, mintzairaren eskea birformulatuz, idazlanketari helduz, argitalpenak euskaraz kaleratuz, irakaskuntza bultzatuz (Ikastola, euskal eskola), guzti horren bidez, itxarobide hobeen atarian zegoen Nafarroa, gerra zibila lehertu zenean.

Gerraondoa (1939-1989)

Gerraondoko euskaltzalego nafarrak bizpahiru hamarkada behar izan zituen bere lanari presentzia sozial sumagarria emateko. 1960tik aurrera bertsolarien jaiak, herrietako haurren sariketak, aldizkako argitalpenak, euskal idazleen edizioak, euskarazko eliz lanak, lehenengo ikastola apalak, hizkuntzaren aldeko jaiak, etab.

Lan gaitza izan zen hau dena, eta gehienbat gizarteak berak bultzatu eta eratua. Erakunde ofizialetan edo Elizan ziharduten euskaltzale gutxi haiek ere egin zuten ahal izan zutena, edo beldur-rak utzi ziena. Nafarroako ekimen sozial pribatu hark eta han-hemengo eta unean uneko babes ofizial honek lortuta baliospen historikoa egiteke dago oraindik, oro har.

Erazzenera gatozela, aipa ditzagun argitalpen nafar batzuk. 1958an Irigaraik bere idazle-antologia eman zuen (1971n osatuko zena); Irigarai berak (1974) eta Sánchez Carrión-ek (1972) jarri zizkiguten begi-aurrean euskararen geografia historiko nafarra eta zapalkuntza-ondoko egoera. Lan hauek are argiago utzi zuten Nafarroan hizkuntza jasaten ari zen hondamendiaren izugarria, eta berorri ematen zitzaion laguntza ofizialaren ezaskitasuna.

Nafarroako mundu ofizialak, beste herrialdeetako ei aurrea hartu ere egin zien zenbait euskal egitekotan, ezarritako zapalkun-

tzaren kalteak berdintzeko lain izan ez bazen ere. Gogora litezke hemen ekinkizun batzuk: Diputazioaren euskal ikastaroak (1951), Erakunde berak "Euskararen Sustapenerako Saila"ren sortzea (1956), Zangozako Lore-Jokoak (1966, 1967, 1970), herrietan Aurrezki-Kutxek antolatutako haur-sariketak, Euskararen Sustapenerako Oinarriak (Diputazioa, 1972), etab.

Bertsolarien lehen txapelketa (1960) izan daiteke euskaltzaletasunaren bihurtzea: kanporaketak, Lekunberrin, Elizondon, eta, azkena, Lesakan ospatu ziren, Euskal Herri osoko finalera NARBarte eta Perurena goizuetarrak pasatzen zirela. Hamarkada hartan eman zitzaion hasiera ikastolagintzari, hamarkada-pare bat geroago ia 7.000 haur (1988-89: 6.995, hain zuzen) bildu dituen eskolamota hau eraikiz. Euskaltzalego nafarraren ahaleginen neurria ematen digu aditzera datu honek. Jaialdi herritarrek hainbat mila lagun bildu izan dute eraikuntza honi laguntzeko (*Bai Euskarari* kanpaina, 1978; *Korrika*, 1980; *Nafarroa Oinez*, 1981).

Hizkuntza irakaskuntzara eraman-ahaleginetan, ekar ditzagun hona, gogoangarri, 1964ean Nafarroako Unibertsitatean sorturiko Euskararen eta Euskal Kulturaren Katedra, eta euskal munduan eraginkorragoa gertatu den Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), 1977tik hona Iruñean ospatu ohi dena. Euskararen inguruko goi-ikasketen artean, iker-argitalpenetan aintzakotzat hartzekoa da, beste herrialdeetako geroko aldizkariei aurrea irabaziz, Diputazioak argitara izan duen *Fontes Linguae Vasconum* (1969).

Frankismoaren ondoko urteetan beren bidea egin dute lan horiek, eta Alfabetatze-Euskalduntzeak ere (AEKren antolamendu sozialak, adibidez: 2.689 ikasle, 1987-88ko ikasturtean). Erakunde publikoetan, Parlamentuak euskararen ofizialtasuna ezagutu zuen (1980), Elizak euskarari leku osoa eman zion Liturgian (1981) eta Euskararen Legea onartu zen 1986an, Gobernu Nafarraren hizkuntz politika ondoko urteetarako definitu nahirik.

Esan bezala, guzti honen balioztapena egiteko dago, baina beude aipuok hemen, irakurlearen gogorakizun izan daitezten.

Iraganetik etorkizuna barruntatzen

Egungo egoera demolingustikoa ez da, inola ere, aurreko mendeetako historian ezagut ditzakegun egoerekin berdingarri. Asko eta ezberdinak izan ziren haiek, baina azken mende t'erdiko itxuraldaketa sozioekonomikoen ondoren panorama guztiz berri bat dugu orain, aurreko mendeetakoekin antz gutxikoa.

Euskal Herria hiru herrialde nagusitan banatzen bada (Iparraldea, Hiru Probintziak, Nafarroa Garaia), estatistika orokorrenek datu hauek ematen dizkigute: Euskal Herriko 650.000 euskaldunetarik 52.000 dira Nafarroan bizi direnak (1988). 1986ko Errol-daren arabera, Herrialdeko % 10,15 dira euskaldunak, eta ia-euskaldunak (kontzeptu gaizki definitu horren barnekoak) gehituz, Nafarroako euskaldun/ia-euskaldunek Herrialdeko biztanleriaren % 15,43a osatuko lukete. Aipatutako hiru lurralde nagusietan, portzentaiarik apalena izango litzateke (besteek: Iparraldea, % 30,10 edo; Hiru Probintziek, % 24,70). Hori da historiatik eman zaigun euskaldungo-ondarea, ondare hagitz mugatua, eta azken orduan (1868tik hona alegia) erdira etorri zaiguna (Velasco-k urte horretarako ia % 20aren portzentaia eman bait zuen Nafarroarako).

Nafarroaren egungo egoerarekin zerikusi eta zeresan zuzena du, eta areago izan lezake etorkizunean, Administrazioak bere hizkuntz politika egiteko onetsitako Euskararen Legeak (1986): hiru eremu geografikotan banatuta geratu da, horren arabera, Nafarroa. Balorazio eta eztabaida juridiko-politikoak aherentzi gabe ere neri hemen dagokidana zera da: Gaur eguneko egoera eta lege hori, historia luze eta aldartetsu baten azken kapitulu sozio-politiko delako azpimarratzea. Hurbileko 150 azken urteetako historiarik gabe ulertezina gertatuko litzateke oraingo Legea.

Egoera soziolinguintistikoaren baitan sumatzen diren kontraste eta kontraesanak nabariagoak dira Nafarroan. *guztiena* bezala definitutako hizkuntz ondarea, adibidez, Lege berak *ezberdinki* banatu nahi die nafar batzuei eta besteei. Badago hor, azpian, bidegabekeriez betetako historiaren interpretazio interesaturik eta "ger-

tatua, bego!” dioena. Jasandako glotofagiaz ez da hitz egin nahi: Nafarren historia linguistikoa Museoan gordetzeko arriskutan gaude beraz. Esaten denez, *hemen* eta *orain* bizirik dagoen hizkuntzari eutsi bai, baina errealitate historikoa *berreskuratu* eta gaur-eguneratu nahi ez den *guztion ondarea*, ez da, noski, hain guztiona, ez hain ondarea. Pentsa liteke, behintzat.

Nafarroaren historia luzea eta sozialki zabalena, euskaraz egin da. Eta nafar etnohistoriaren balio horrek ongi azpimarratuta geratu beharko luke, hizkuntz erreibindikazioaren diskurtsu sozial berri-ritu batean. Berriz ere Historiaz dugun ikusmoldearen arazoarekin topo egiten dugu: Herritarren eguneroko ahots mintzatu ez idatzia hobesten dugu gure baitango Historiaren balio amankomunena bezala, ala maiteagoak ditugu boterearen eta gidarien hizkuntza idatzia eta beraien protagonismoa. Desmemoriatuz lapurtu zaigun historia ezezik, desbiderazio historiko-politiko bidez ezkutatu zaigun herritarren etnohistoria linguistikoa beharko litzateke, iraganeko injustiziek Nafarroari etorkizuna ere ohostu ez diezaioten.

Itxarokizun oro gal ez ditzagun, ordea, batetik, gizartetik datorren praxi politiko-linguistikoak eta, bestetik, Erakundeak plangintzaren bidetik, elkarren ondoan eta osagarri, tira eta bultza egin beharko dute. Badirudi, ordea, indar politiko korrelazioak ez duela, laster bederen, horrelako lankidetzarik ahalbideratuko. Indar guztiak batuta ere, gutxi izango liratekeen une honetan oso larria da hori. Azkeneko mendean ikusitakoek ez dute etorkizunaren aurrean baikor izateko arrazoi handirik ematen: gutxi batzuek lan asko egin dute, baina euskararen hondamendiak aurrera egin du. Alde egindakoa ez da aski izan, eta aurkakoak eta utzikeria egoeraz nagusituz joan dira, gero eta gaztelaniaren alderago.

Berrikitan ikusi ahal izan dudanez, hizkuntzaren makro/mikro-politikak beste herrialdeetan baino gatazka eta noraez ozpin-duagoan eta kontraesanez beteagoan antzeman litezke Nafarroan. Erabaki politikoek eta euskararen aldeko ekintzek balio ezberdinak har ditzakete Historian ere hain eskualde ezberdinetan banatuta ikusi dugun Nafarroa honetan. Euskaltzalegoak berak, ekin-

tza bat berari balio ezberdinak ezezik, kontrajarriak ere eman diezazkioke inguru geo- edo demolinguistikoz aldatu orduko. Inoizko *saltus* eta *ager*-aren arteko aldeaz gain (hori ere bizirik dago: zorionez ere esan liteke), orain, azken hamarkadetan, erbeste-ko erdaldungo berri bat bildu da Erresuma Zaharrera, eta hori, euskarari eutsi eta etorri-berriei eman ahal izateko oso baldintza txarretan. Inmigrazio historikoeak (zelta, erromatar, arabiar edo frankoek), oro har gizarte gehienbat euskaldun elebakarra topatu zuten Erriberaren ataritik Mendialderaino: orain etorri-berriek, hasteko, ez dute horrelakorik aurkitu. Eta gero, Estatuaren aparailu erdaldun erdaltzalea eman zaie, bertoko hizkuntzari inolako itzalik izan gabe, hemen egon bazegoen gaztelaniaz eta berekin zekartenaren indarrez euskararen glotofagia ziurragoa izan zedin.

Baldintza soziolinguistiko hain kontrakoak ez ditu ezagutu inoiz Nafarroako euskaldungoak gure belaunaldia arte. Hizkuntzaren lurraldetasunaren balioaz eta betekizun sozialen galeraz ohartzeko esperientzia historiko hurbilen eta larriena da XX.eko hau, lanerako ahalbide berriak izan ditzakeen gure belaunaldia-
rentzat.

Egoera iraultzeko, euskaltzalegoaren ahaleginak, euskaldungo osoaren kontzientzia, erdaldungoaren parte on baten tolerantzia eta borondate positiboa, eta botere politikoen plangintza —denak elkartuta— beharko dira, Nafarroa gutxienez euskalduna *ere* izan dadin. Historian, batez ere inertziak eta inguruko egokiera hobeeak salbatu digute behin baino gehiagotan nafar euskara; gaurgero ez da hori aski izango: nafar gizarteari eta botereari dagokie hizkuntzaren aldeko dinamika aski eraginkorra sortzea.

J. I.

¹ Ondoko orrialdeetan jasotzen ditugu Akten pasarteak, dakigunez, lehenengo aldiz ematen dira argitarara. Aktetan euskarari buruz agertzen diren testu guztiak jaso nahi izan ditugu.

ACERCA DE LA HISTORIA DEL EUSKARA EN NAVARRA

AUTOUR DE L'HISTOIRE DE LA LANGUE BASQUE EN NAVARRE

Esta exposición histórica arranca desde la Prehistoria, con los primeros datos epigráficos y literarios que testimonian, a comienzos de nuestra Era, una población vascona cuyo perfil lingüístico irá emergiendo del claroscuro histórico inicial hasta testimoniarse como euskérico una y otra vez en la posterior documentación medieval. El vascuence de la población vascona conoció momentos y ámbitos geográficos en que vaciló ante el latín de la romanización, para fortalecerse tras la caída de Roma. La aparición del romance navarro y la presencia inmigrante también románica nos ofrecen una Edad Media plurilingüe, sin que la generalidad de la población navarra del Reino perdiera el euskara.

No obstante desde la Baja Edad Media, el euskara fue marginado de las manifestaciones escritas en la vida oficial del Reino, aunque la práctica monolingüe de la casi totalidad de la población debió admitir el uso hablado en las diversas tareas de la Administración, tanto civil como eclesiástica, tal como puede verse aún posteriormente en la documentación de los siglos XVI-XVIII. Esta nos ofrece, además, las líneas de demarcación interlingüística en fechas tales como la de 1587 ó 1788. La línea que va de Tafalla a Estella debió de mantenerse a lo largo de siglos como vanguardia sur del euskara. Al mismo tiempo, en la Edad Moderna aparece una conciencia historiográfica atenta al valor de la lengua, y en ocasiones también la reivindicación de nuevas funciones sociales para la misma.

Pero es con el Renacimiento Vasco (1876-1936) cuando el hecho lingüístico del euskara toma el cariz de una reivindicación nacional, con la voz de alarma que se expresa entre los miembros de la "Asociación Eúskara de Navarra". El artículo recoge en extenso documentación hasta ahora inédita, de las actas de dicha Asociación. A ello se añade una visión rápida de hechos y fechas lingüístico-culturales hasta 1936.

*Finalmente se hace constar que los vascoparlantes navarros son 52.000 (1988), que la Ley del Vascuence compartimenta la geografía navarra de forma que podría venir a **consagrar** el status quo derivado de un pasado de opresiones o **dejeciones**. De ahí la urgencia de una planificación recuperadora, que **aúne** las actuaciones oficiales y la iniciativa social, para hacer que todo navarro tenga acceso a este testimonio lingüístico común.*

Cette exposition historique débute par la Protohistoire avec les premières données épigraphiques et littéraires au début de notre ère, témoignage d'une population vasconne dont le profil linguistique émergera peu à peu de la pénombre historique initiale se montrant à plusieurs reprises bascophone d'après la documentation médiévale postérieure. La langue basque de la population Vasconne connut des moments et espaces géographiques d'instabilité devant le latin de la romanisation pour se renforcer suite à la chute de Rome. L'apparition du roman navarrais et la présence immigrante romanique aussi, nous offre un Moyen Age plurilingue sans que la plupart de la population de Navarre du Royaume perde sa langue.

Cependant à partir du Bas Moyen-Age, le basque fut mis à l'écart des manifestations écrites dans la vie officielle du Royaume bien que la pratique unilingue de la presque totalité de la population dut admettre l'usage parlé dans les diverses tâches de l'administration aussi bien civile qu'ecclesiastique comme on peut le remarquer bien que postérieurement dans les documentations du XVI^e au XVIII^e siècle. Celles-ci nous offrent en outre les lignes de démarcation interlinguistique aux dates de 1587 ou 1788. La ligne tracée de Tafalla à Estella a dû se maintenir tout au long des siècles comme l'avangarde du sud du basque.

En même temps une conscience historiographique apparaît à l'âge moderne en s'occupant de la valeur de la langue, et parfois aussi de la revendication des nouvelles fonctions sociales pour celle-ci.

Mais, c'est avec la Renaissance Basque (1876-1936) que le fait linguistique de la langue basque prend l'allure d'une revendication nationale avec le cri d'alarme qui est lancé par les membres de "L'Asociación Euskara de Navarra". L'article recueille in extenso la documentation jusqu'à présent inédite des actes de la dite Association. A ceci, s'ajoute la vision rapide des faits et dates linguistico-culturels jusqu'en 1936.

Finalement, on fait remarquer qu'il n'y a que 52.000 bascophones navarrais (1988) et, que la Loi de la Langue Basque sectorise la géographie de Navarre de sorte qu'elle pourrait venir consacrer le statu quo dérive d'un passé d'oppressions ou d'abandons. Raisons pour lesquelles une planification récupératrice s'avère urgente afin d'unir les actes officiels et l'initiative sociale pour que tout navarrais ait accès à ce patrimoine linguistique commun.